

Itz eta entzun bideak

Tierra Vasca, 127. zk., 1967-01: 7.

Aurak euskeraz entzutea nai degu.

Ziur egon zaitez, ez dizu erratioan edo telebisioan entzungo; zinean ere ez; kalean ere ez asko, zoritxarrez.

Bide oiek oraindik debekatuak edo oso motzak ditu gure izkuntzak. Etxean entzun bear aurrena; noski, *zuk euskeraz egiten ba'dezu*.

Aurra euskelduna izatea nai ba'dezu, jarri zazu etxean euskera entzuten. Umeak ez dizu esaten diozuna ikasiko, egiten ikusten dizuna edo entzuten dizuna baizik, aita-amak eta anai-arreba zarragoak zer egin eta zer esan, ura egin eta ura esango dizu umeak. Lenengo bost urteak bere-biziko garrantzia omen dute. Gero, al ba da, eusko lagun artean jarri; umeak lagunekin egiten duan guzia indar aundiko ezperientzia izaten da ta. Gero, ikastolan al ba liteke, ikastolan; baiñan ba dakigu au batzuetan zalla dala, oraindik beintzat.

Bere aurrei batere laguntzen ez dioten guraso euskeldun asko ezagutzen ditut. Bere aurak euskeraz egiten nai dute, baiñan señar-emazte artean erderaz aritzen dira. Orrelako gurasoekin umea ez da euskeldun egingo. Euskera ulertuko du, bear ba da, baiñan ez du umeak euskeraz itz egingo.

Bere aurrari euskeraz egiten dioten gurasoak beren artean euskeraz egiten ez ba dute, ez dute bere umea euskeraz egiten jarriko. Umeak euskeraz entzungo du, ta ulertuko du, baiñan erderaz erantzungo du. Umeak ez du euskeraz ulertzez galduko aurrena, baiñan pixkanaka-pixkanaka galtzen joango da. Ta umeak berak euskeraz erantzuten ez ba dizu, galdu zazu. Ume au euskeldun-alperra edo pasiboa izango da lenen, ta gero euskeldun izatez utziko du.

Nola liteken au?

Ba dakigu entzun-bideak eta itz-bideak izate berdiñekoak ez dirala. Izkuntz bat entzuten ea irakurtzen ikastea ez da orren zalla. Beste buru batek asmatutakoa entzun edo irakurtzea errez xamarra da; buruauzte bat asmatzea bezela. Baiñan bakoitzak bere buruan sumatu, ta gero itzak alkar erantzi, ta oiek besteren baten belarriaren bidez beste norbaiteri zerbait adieraztea, bata besteari zerbait komunikatzea, ori da zaila. Ta izkuntz nagusitasun ori itz egiñez bakarrik irixten da. Lan ori egitera umea beartu egin bear da. Zuri euskeraz entzun ondoren, berak euskeraz erantzun bear dizu. Lan ori egitera umea beartzen ez badezu, ez du berez egingo. Euskeldun-alper izatera jetxiko zaizu semea aurrena, ta gero erdeldun utzean geratuko zaizu.

Zure eusko saña igartu zaizu.